



SALLABENTEKARIA

2014ko MARTXOA.

31. ZENBAKIA



INAUTERIAK!!!



BERRIAK



POM PORROM POM POM


Beste urte batez
Haur Hezkuntza-
ko ikasleak tan-
borrada jo zuten.
Txalo zaparrada
ondo merezitakoa
izan zen.



SANLORENZOTXO

SANLORENZOTXO

Sanlorenzotxo gure
eskolako maskota da
eta hitz egiten dakil!
Gure eskolako blo-
gean mezuak uzten
ditu. Orain asmakizu-
nekin hasi da. Ea as-
matzen dituzuen



Natura tailerrean, in-
gurunearekin zerikusia
duten gaiak lantzen
dituzte. Momentu
honetan, nagusienak,
fruituei haziak atera
eta lurrean ereiten
dabiltza, gaztetxoa-
gaak berriz, errezi-
klatzeko materialekin
instrumentu musikalak
sortzen ari dira

NATURA TAILERRA



IPUIN SARITUA

Garazik, Ermuko ipuin lehiaketa irabazi du. "LAU LAGUNAK"
da ipuin irabazlearean izenburua. Ea gustatzen zaizuen

Bazen behin, lagun talde bat. Txiki-txikitatik lagun minak ziren. Hiru mutil eta neska bat zeuden lagun taldean: Aitor, Xabi, Naia eta Jon. Haur-eskolan, lehen hezkuntzan eta institutuan elkarrekin ikasten zuten.

Unibertsitatea eta gero, banatu egin ziren. Jon Australiara joan zen surfa egitera; Naia Afrikara joan zen pobreei laguntzera medikua zelako; Xabi Madrilera abiatu zen musikalki baten abestera; Aitor Holandara joan zen moda diseinatzaile bezala lan egitera.

Lagun taldea hamar urte egon zen ikusi eta hitz egin gabe. Jon Australian oso ospetsua egin zen surflari bezala; txapelketa asko irabazi zituen; Aitorrek Holandan, munduko modelo ospetsuenekin lan egiten zuen; Naia Afrikan langile oso ona izan zen; Xabi Madrilan oso famatua bihurtu zen.

Jonek istripu bat izan zuen, surfeko taularekin buruan eman zuen. Lagunek ez zekiten ezer Jonen istripuari buruz. Xabik Madrilan musikalki bat egin behar zuen. Naia musikalki ikustera joan zen Madrilera. Aitor Madrilan egun horretan, bere moda kolekzioa aurkeztu behar zuen. Aitor, desfilea pasa eta gero, musikalki ikustera joan zen.

Musikalean Aitorrek Naiarekin topo egin zuen. Elkarrekin musikalki ikusten zeudenean, konturatu ziren pertsonai nagusia Xabi zela. Naia eta Aitor Xabiren kamerinora abiatu ziren eta Xabik esan zien:

Goazen taberna batera kafe bat hartzera. Hirurak berriro elkarrekin gaudela ospatu behar dugu!

Ederto!- esan zuten Naia eta Aitorrek batera.

Tabernan zeudenean, telebistan ikusi zuten surfista bat koman zegoela eta konturatu ziren Jon zela.

Hurrengo egunean abioia hartu eta Australiara abiatu ziren hiru lagunak.

Australiako ospitale guztietara joan ziren. Eta ospitale horietako baten Jon zegoen. Bisitatu zuten eta hil zorian zegoela esan zioten, Naiak eskutik heltzen zion, Xabik abesten zion eta Aitorrek hitz egiten zion. Bat-batean... Jonek begiak zabaltu zituen eta Naia negarrez hasi zen.

Jon ospitaletik irten zenean lau lagunak hondartzara joan ziren. Lagunak arean eserita zeudela Naiak esan zien:

Gauden lekuan gaudela, beti lagun minak izango gara!

HAUR HEZKUNTZA

4 URTEKOAK ARTITSTA TXIMISTAK

Hona hemen 4 urtekoak beraien lan artistikoekin. Oso ondo margotzen dute tenperarekin eta gainera oso dibertigarria da nahiz eta batzuetan istripuren bat gertatu (arropa zikindu, margo poteak bota...)



IKASLE BERRIAK

Hemen dituzue aurtengo ikasturteko ikasle berriak. Hasieran negar batzuk egin zituzten, baina dagoeneko pozik eta alai dabilta. Jolaserako eta lanerako beti prest.



MARRUBI GOXOAK

Natura tailerrean marrubiak landatu dituzte, beraien irudia egin eta azkenean marrubiak jan dituzte.

MMM... gorri goriak eta goxo goxoak.



MARGOLARIAK

Ikaragarria da zenbat gustatzen zaien 3 urteko umeei pintzela eta tenperarekin margotegi txokoan aritzea. Dagoeneko piolinak, aterkiak, madariak, zenbakiak,... margoztu dituzte. Seguru norbait margolaria bihurtuko dela !!!



1. ZIKLOA



SAN BLAS

San Blas egunean, Ermuan opilak egiteko eta jateko ohitura handia dago. Edozein txokotan usaindu daiteke anisa. Gure herrian oso egun berezia da. Hori dela eta, ama baten laguntzaz, San Blas opilak egin ditugu eskolan. **GOZOAK BENETAN!**

IGERIKETA IKASTAROA



2. mailako ikasleak igeriketako ikastaroa egiten hasi dira. Hasieran, norbaitek beldar apur bat pasatu bado ere, orain, guztiak primeran dabilte eta ezin hobeto pasatzen dute. Izurdeak dirudite!!!



LOREAK EGITEN

Bigarren mailakoak birziklatzeko materiala erabiliz lorontzi eta lore koloretu sorta polit hauek egin ditugu. Argazkian ikusten duzueenez, oso gustura aritu gara lanean.



2. ZIKLOA



biblioteka

IPUIN KONTALARIA INGELESEZ



Bikain pasatu dugu ingelesko ipuin kontaketa-rekin. Gainera, batzuetan ipuine-tako pertsonai bihurtzen ginen eta antzerki pis-ka bat egiten genuen.

4. MAILA KONTU KONTARI

4. mailakoak Ahate itsusiaren ipuina idatzi, margotu eta txi-kien gelatan kontatzen ibili gara.



4. maila-koak, ingelesko klasean auzoa lantzen ari dira.

INGELESEAN AUZOA LANTZEN



Gai horretako egiturak lantzeaz gain, maketak ere egin dituzte. Begira zein politak atera zaizkien.

Gorputz hezkuntzako klaseetan primeran pasatzen dugu. Jolasak, kirolak, elkarri laguntzeko ariketak... Batzutan haserretu ere egiten gara, baina berehala konpondu eta ariketa egiteko prest gaude berriro ere. Gainera, gabonetatik aurrera igeritokian hasi gara ikastaroa egiten.

Kontuz gurekin hurrengo olimpiadetan !

3. MAILA GORPUTZ HEZKUNTZAN



3. ZIKLOA

LOS POETAS DE 5º

Cuando me voy a dormir
desde la ventana veo el cielo brillar.
Me tumbo en las silla y miro las estrellas.
¡Qué estrella mas bella!

¡Luna oscura! Te amo más que nadie
El día se acaba
Y la oscuridad es fría como la nieve
¡Que estrella más bella!

La luna oscura es tan bella como tú.
Acostándome para empezar un nuevo día
Y durmiendo pensando en las estrellas.
Cenando para ir a la cama
¡Qué estrella mas bella!

¡Oh! Preciosa oscuridad!
Eres la parte oscura del día.
Un día sin sol
Es muy largo si duermes mal.
¡Qué estrella mas bella!

Paula, Xiana, Mohamed, Ismael



En 5º estamos realizando un taller de poesía. Trabajamos en grupos y contamos con la colaboración de personas adultas que se encargan de apoyar al grupo. Más adelante, vendrá un poeta a clase para darnos su visión. De momento cada grupo ha creado una poesía. A ver si os gusta esta.



6. MAILAKOAK LAISTER INSTITUTORA

10 urte eta gero eskolan, laister institutura joateko garaia helduko da. Gure barruan, emozio ezberdinak ditugu, urduritasuna, tristura, poztasuna,...

Ongaraikoek, institutua ezagutzera gonbidatu ziguten eta han egon ginen gu, Ongaraiko 6. mailakoekin batera, inguruak aztertzen. Iada, lagun berriak egiten hasiak gara!



TXISTEAK

-Ama!, ama! Eskolan ez di-
date kasurik egiten.
-Ama! Ama? Amaaaaaaaa!?
Wafa eta Gizane

Jaimito klasean dago eta
Maitane andereñoak gal-
detzen dio:

-Jaimito, alfabetoa zein
letrarekin hasten da?
-B?????
-Ez Jaimito!! Hurrengoan,
leihotik botako zaitut.
-C????

Andereñoak lehiotik bota-
tzen du eta:

-Aaaaaaaaaa!!!!!!!
-Oso ondo Jaimito!
Paula R eta Jugatx

Tontoari galdetzen diote:
-Hegazkin batean bazaude
eta sua hasten bada, non-
dik aterako zara?
- Telebistan notizietatik!
Maria, Desi eta Paula

Ahate bat denda batera sartzen da
eta galdetzen dio dendariaria:
- Mahatsak daukazuz? - Ez - esa-
ten dio dendariak. Ateratzen da
dendatik eta berriro sartzen da eta
galdetzen dio: - Mahatsak dauka-
zuz? - Ezeztz!!! - esaten dio berriro
dendariak. Ateratzen da eta berri-
ro sartzen da, eta esaten du denda-
riak: - Esaten badidazu berriro ma-
hatsak ea badauden, lurrera lotuko
zaitut. Ateratzen da eta berriro
sartzen da eta galdetzen dio: - Il-
tzeak daukazuz? - Ez - Mahatsak
daukazuz? Iker eta Sohaib

- Jaimito erosketak egitera noa eta
gauza hauek egin behar dituzu: zure
arreba ohean sartu, oilaskoa labean
sartu, komuna jaboiarekin garbitu eta
zuk urdaiazpikoa jan- esan zion amak.
Joan zenean Jaimitok jaboia jan
zuen, komuna urdaiazpikoarekin gar-
bitu zuen, bere arreba labean sartu
zuen eta oilaskoa ohean sartu zuen.
Bere ama heldu zenean:
-Jaimito zer egin duzu???!!! -
Ssshhh!!!! oilaskoa lo dago eta!
Claudio eta Jon

Gizon bat medikuarengana joan zen
eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bat daukat.
Nire puzkarrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat
oraintxe bertan!
-PPPPPPRRRRRRRRRRR!
- Hori larria da. Ebakuntza behar
duzu!
- Ipurdian?
- Ez, gizona, sudurrean!
Garazi eta Saioa

Indio bat tabernan sartu zen:

—Zuk whisky gogorra eman edo in-
dioak ez ordaindu.
Gizonak whisky gogorra ematen dio
eta indioak esaten dio:
-Whisky hau ez da gogorra, indioak
ez ordaindu.
Hurrengo egunean berriro...
-Whisky gogorra eman, bestela in-
dioak ez ordaindu- esan zion.
Tabernariak whiskyarekin batera
polbora hautsa bota zion.
Hurrengo egunean indioa sartu zen
esanez:
-Whisky arinago eman, izan ere, atzo
indioak puzkerra bota eta zaldia hil.
Miren eta June

Mugikor batek jotzen du
harategi batean:

-Txerri burua daukazu?
-Bai andrea
-Eta oilazko hankak?
-Bai andrea
-Ba orduan, monstro bat
izango zara!
Desi, Paula eta Maria

- Ama eskolan
"kanpaiak" esaten digute.
-Tolontokeriak, seme, to-
lontokeriak.
Gizane eta Wafa

Maisuak Jaimitori galde-
tzen dio:

-Zenbat da bi gehi bi?
-Auskalo! ez badidazu da-
tu gehiago ematen...!
Jon eta Claudio

Mutil batek esaten dio
bere emazteari:

- Maitea, hemendik au-
rrera nire bizitzako mai-
talea deituko zaitut
Emazteak erantzuten dio:
- Ba nik Dalmata deituko
zaitut nire ehun eta bat-
garren senarra zarelako.

June eta Miren



ZEIN DA NESKA/MUTILEN ALDE ONA? ETA ZEIN TXARRA?



PABLO



Ez dira gu
bezelako
astokiloak



Askotan
pelmada
eman eta
molestatu
egiten dute



GARAZI



A veces ju-
gamos jun-
tos y lo pa-
samos muy bien



Algunos
son un
poco
brutos

ALEX



Beraiekin jo-
lasten uzten
dizute eta ez
dira asko
hasarretzen



Egun guztia
dantzari pas-
atzen dute.
Ah ze aspergarria!



AROA



Te ayudan
con los
trabajos



A veces
son unos
matones



AINHOA



Dibertigarriak
dira eta nik
barre asko
egiten dut
beraiekin



Egun osoa
protestaka
daude



Wafa



Algunos son
majos,
pero no
todos eh!



Se enfa-
dan por
cualquier
tontería